

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ramon Urdangarin Esnal

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1939-2011)*

Aurkibidea



Biografia



Urnietako Goiburu auzoko Erdiko Enbutegin jaio zen. Zazpi senide ziren eta bera bosgarrena zen. Zazpi-zortzi urte zitueneko itaurrean hasita, eskolara hilean behin joaten omen zen. Baserritar askok bezala, etxean lana izanda eskolara egunero joatea ez zen erraza izaten. Soldadu egon zenean, ordea, alfabetatu gabe zeudenei eskola pixka bat hartzea agindu zieten, baina hasierako egunak eta gero, laster bidali zuten bere postura, nahikoa ba omen zekiela esanez. Basoan aritu zen lanean eta gazteena zenez, askotan berari tokatzen zitzaion suari kontu egitea eta bazkaria prestatzea. Igeldoko basoetan aritu zireneko istorio politak ditu kontatzeko. Goierriko artzain familia batean ere morroi egoten zen neguan Urnietara inguratzen zirenean. Apiril bukaeran, Goierriko bidea ia 300 buruko artaldearekin nola egiten zuten ederki gogoratzen zuen.

Zintak

URN-020

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-02-03
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Agirre, Eli

Pasarteak

1. Goierritar asko Urnietan

- **Erref:** URN-020/002
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:02:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitona Goierritarra zuen, Ataungoa. Urnietako baserri askotan Goierritik etorritako jendearen ondorengoak bizi dira, baina ez daki noiz etorri ziren.

2. Hilean behin eskolara

- **Erref:** URN-020/004
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:09:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Zazpi-zortzi urte bete orduko itaurrean lanean. Eskolara hilean behin edo joaten zen bakarrik. Zenbat eta gutxiago joan, orduan eta gogo gutxiago joateko. Herriko eskolan neskak eta mutilak nola banatuta zeuden. Orduan ez zitzaion eskolari inportantziarik ematen.

3. Maisuak belarrondokoa arrebarekin dantzan egiteagatik

- **Erref:** URN-020/005
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:09:06. **Bukatu:** 00:11:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Dotrina erdaraz ikasten zuten eskolan maisuarekin, eta euskaraz sakristian apaizarekin. Maisu bat erretzaile handia zen, eskuak hori-hori eginda zituen. Behin belarrondoko ederra eman zion arrebarekin dantzan egiten ikusi zuelako.

4. Egun batean nahikoa ikasi soldadutzan

- **Erref:** URN-020/007
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:12:02. **Bukatu:** 00:13:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzan analfabetoak eskolara bidali zituzten. Behin joan zen klasera eta esan zioten gehiago ez joateko, bazekiela nahikoa eta. Iruñean egon zen soldadu.</p>

5. Soldadutzan eta dotrinan ikasitakoek ezertarako balio ez

- **Erref:** URN-020/008
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:13:48. **Bukatu:** 00:15:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzan eta dotrinan ikasitako gauzek ez diote ezertarako balio izan. Carrascalen (Artederretan) egin zion banderari zin. Gero, etxera etorri zen baimenarekin. Pozik, denbora luzea zeramalako andregaia ikusi gabe.</p>

6. 17 urterekin Oilalumera dantzara

- **Erref:** URN-020/009
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:15:28. **Bukatu:** 00:17:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

15-16 urterekin hasi zen neska-laguntzen. Pilotan pasatzen zuten denbora. 17 urterekin Oilalumera dantzara. Autobusez joaten ziren.

7. Dena kontatu behar apaizari

- **Erref:** URN-020/011
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:19:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Zirriak-eta egitea bekatua zen. Apaizari dena kontatu behar zitzaion konfesioan. Lehen gehiegi alde batetik, eta orain beste aldetik. Oraingoan aukera izan balu... ez omen zuen gauza onik egingo, eta alde batera horrela hobe.

Transkripzioa

-Ez al zeon xirririk eta egiterik?
-Et, et, et. Pekatu zan. Hillero komeniyua hartzea edo konpesatzea luistarren zea. Ta apaizai dana esan bihar ziñon. Ta in zazu pekatu gero hari esateko!
-Dena esan bihar zitzaion apaizai?
-Dana [haik]. Txintxo ibilli biharra zeon. Ordun gehiegiya zan ta oain'e gehiegiya do. Alde batea ta bestea.
-Bi muturretan
-Bai. Oaingo gaztiak bezelako aukera izan banu nik...
-Ze egingo ote zenittun?
-Gauz onik ez nun ingo, ez. Gauz onik ez nun ingo ta hobia. Pekatua errespetatzen gendun.

8. Basomutil, artzain, laborari..., ofizio asko

- **Erref:** URN-020/012
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:19:48. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Udan hilabete pare bat Goizuetan ematen zuen basoan lanean. Udazkenean artzain joaten zen maiatzera arte. Ondoren, etxera etortzen zen artoa erein eta belarrak ontzera. Lan asko eta diru gutxi.</p>

9. Udaberriko soroko lanak

- **Erref:** URN-020/013
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Maiatzean prestatzen zen lurra gehienetan. Goldatu lehendabizi, harria pasatu, gero; kirmarroa ondoren. Markatu, aitzurrarekin zuloak egin eta artoa eta baba sartu.</p>

10. Buztin-lurra eta lur beltza

- **Erref:** URN-020/014
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:23:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Buztin-lurra da bere baserrikoa eta inguruetakoa. Emaztearen baserrikoa, berriz, beltza, samur-samurra. Buztin-lurra txarragoa da izatez, baina lehorte garaian hobeto irauten du, hobeto erantzuten du.

11. Artoa eta babarruna

- **Erref:** URN-020/015
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:23:55. **Bukatu:** 00:25:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Goldatzerakoan botatzen zaio lurrari simaurra. Arto-jorraketa lanak nola egiten diren azaltzen du: besabea (bostortza) erantsi astoari edo behiari, ilara bitartetik pasatu, eta gero, aitzurrez, bete eta azken ukituak eman. San Migel aldera biltzen da arto eta babarrun uzta.</p>

Transkripzioa

- Hortaz aparte lagundu beharko zitzaion ba ximaurrak in eo?
- Ximaurra, goldetzea geo, ta geo goldetu.
- Eta gero, zer, jorratzeko eta, hoi nola izaten dia, zertako izaten da jorratzia?
- Hoi, zeatzeko, belarra atera, tartian jaiyotzen da ta, hua lehenbizi besabia pasa, besabie egurrezkua izaten da bestia, bost hortza ez dakit zenbat dittun. Ta behiya eo idiya /iriya/ eo uztarri-motzian /uztar-motzian/ lotu hari erantsi ta bat aurretik eta bestia atzetik. Harekin lurra ein ta geo atxurrai zeatu. Bai, bai.
- Lan asko, eta gero noiz jaso uzta hoi?
- Hoi, San Migel aldea eo. Babarruna're bai, San Migel aldea eo, babarrun mordua biltzen gendun.

12. Garia erein eta ebaki

- **Erref:** URN-020/016
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:25:03. **Bukatu:** 00:27:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Garia nola ereiten den. Gariak ez du jorratu beharrik. Bi gari klase ereiten zituzten, goiz-garia eta berandu-garia. Igitaiz ebakitzen zen garia. Sagardo barrika ekartzen zen egun horretarako eta auzolanean eta umore onean jarduten zuten. Gero sortak egin eta metatu.

Transkripzioa

- Gero, itten zenuen, beste, artua ta babarrunaz aparte, gariya esan dezu.
- Gariya.
- Nola, ze behar du gariyak, ondo...
- Hua, harek ez du jorratu beharrik, bota, lurra eman maietzian [...] ta, geo gaiñetik pasa zerbaitte hua tapatzeko, hazi hua, hua bea jaiyotzen da, bea etortzen da behetik gora hua, gari hua.
- Sail haundiyak izaten zian, gariyanak hemen?
- Bai, bastante, baserri ttikiya zan hau ta, ttikiya ta, batzuk goiz-gariya itten gendun, beste batzuk beandu-gariya. Bi klase izaten zian ordun'e.
- Ta zuek itten zenuena nola esan dezu? Ze klasetako gariya iten zenuela?
- Bitakua, bat goiz-gariya, goizo etortzen zan, bestia beandugo. Bai.
- Ze diferentzi izaten du, ze garaitan ereitten dan edo?
- Ze hazi klase dan izango da hoi. Geo etortzen zian, heltzen zan garaiyan, itayakin mozten zan ordun. Oain makinak-eta dare ta, hor soroa ta hangua ta, hemengua ta... barrika sagardo bat edaten zuen, ta gariya gutxi moztu.
- Gariya mozteko, ordun auzolanian'e aitzen ziñaten? Edo etxe kuak?
- Ez, ni ez nintzan... etxian'e pixka, orduako uzten hasi zian ta. Baiño jendiai, osoba zala, bestia ez dakit zer zala, bestia auzua zala, jendia biltzen zian dozena erdi bat gizon, egun hortan.
- Etxe gehiyotan eitten al zen gariya?
- Bai, bai, etxero.
- Denatan e?
- Bai. Ta gero gari horrekin, bueno, uste det eguraldi ona beharko zula edo?
- Bai, bai, geo, pilletan uzten zan hua, erabillitakua, besaska, besaska... Ta gero itten zittuen sorta hua hiru-lau zea hartu, gari-sorta zea hoi, harei in bueltan, zeatu, lotu.

13. Gari-jotzen

- **Erref:** URN-020/017
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:27:30. **Bukatu:** 00:28:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari-sorta hartu eta harri gainean jotzen zuten eskuz. Sistema hori ezagutu du bere gazte denboran. Gero etorri ziren gari-jotzeko makinak.

Transkripzioa

- Ta geo itten zan, metak batzutan kanpuan ta egualdi zean, ona zanian, zabaldu ta ganbaran bazan geo're ez dakit izaten zan hemen, losa haundi bat, erropa garbitzen ibiltzen dan zea hoitako bat, harria, ta hua jarri han, bi bloken gaiñian eo ta han, "iepa!" ta "iepa!" ta zeatu, jalkitzeko. Ta gu han mutil koskorak eamaten hola ta bestia jotzen ta. Geo makina hasi zan, bai, hor goiko basarri hortako [Pagukua]. Ta harek, berriz, beak itten zun, beak jo ta, ekarri in bihar ondoa, sartu ta, ra-ra-ra-ra ta zeatzen zun harek, txikitu.

14. Lasto-sortak argi egiteko

- **Erref:** URN-020/018
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:28:35. **Bukatu:** 00:30:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Lastoaz lasto-azaoak egin eta argi egiteko erabiltzen zituzten zuzi gisa. Estu-estu lotu, su eman eta ilunetan elizara joateko eta zernahitarako erabiltzen zituzten. Bideak oso txarrak ziren garai hartan. Nahiko meritu izan zuten gurasoek hain familia handia aurrera ateratzeko.</p>

Transkripzioa

- Geo zea hoi, garrillua eo ez dakit ze izen zun, zea jota indako harek ta hare in bihar izaten gendun eliza jungo bagiñan.
- Hara!
- Illun eoten zan ta parolik ez, hue estu-estu lotu bi-hiru lekutan, ta lau-bost bat lagun bai, ama, beti gukin, aitta, behiyak [...] eo [...]. Hari eman su, modu hontan ta martxa hor [...] ta aurea, lau-bost lagun.
- Harek aguantatzen al zun hola..?
- Bai, estu lotu ezkeo bai, bai. Pixket itzaltzen eo zeatzen bazan, "eman!" buelta bat eo bi ta berriz'e [...]. Bidiak txarrak zian ta, abarka zahar batzuk baldin bazian, berrinak, berriz, aurrena jaikitzen zanak jazen zitun, ta azkena jaikitzen zanak, zaharrak.
- Ordun ez zun norbeak eukitzen bere abarkaik?
- Bai, zea eukiko zun, harrapatu in behar.
- Aurrena harrapatutakuak, aurrenekuak hobenak jantzi.
- Bai. Zazpi siñade ta aitta ta ama, beatzi, ta aittona, hamar. Etxe txar hontan, nahikua gure aittak eta amak eitten zuen e? Gu danok bizik ateatzia.

15. Taloa egiten

- **Erref:** URN-020/020
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:30:46. **Bukatu:** 00:31:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Ogia eta taloa berdin egiten omen dira. Taloa nola egiten den azaltzen du. Taloa gustura jaten du orain ere, nahiz eta komeni ez. Edozer gauzak aspertzen omen du egunero janez gero.</p>

16. Aranora eta Goizuetara errotara

- **Erref:** URN-020/022
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:32:30. **Bukatu:** 00:34:22

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Urnietako errotak prezintatu egin zituzten gerra ostean eta Aranora edo Goizuetara joan behar izaten zuten Ramonen gurasoak, astoan zorroa hartu eta artoa ehotzera. Nafarroan libre zen nonbait.</p>

17. Garia eta artoa entregatu egin behar

- **Erref:** URN-020/024
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:34:55. **Bukatu:** 00:37:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Garia, artoa eta abar entregatu behar izaten zuten. Hainbeste kilo entregatzeko abisua etortzen zen, ez daki zeren arabera. Baserriaren tamainaren, uste du. Baziren garia edo artoa erosi behar izaten zutenak entregatu ahal izateko.</p>

18. Basomutilaren lanak eta ardurak

- **Erref:** URN-020/025
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:37:02. **Bukatu:** 00:39:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Basomutil ibili zenean, zuhaitzak botatzen jarduten zuten. Trontzarekin bota eta aizkorarekin soildu. Etxetik hurbil samar zebiltzanean, etxera erretiratzen zen baina urrun zebiltzanean txabolan egiten zuten bizimodua. Gazteena zenez, berak zuen baba-eltzea prestatzeko ardura. Nahiago izaten zuen txabolara erretiratzea etxera edo beste baserri batera gaua pasatzera itzultzea baino.</p>

19. Nobio-nobien ikusmiran Donostia aldean

- **Erref:** URN-020/027
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:40:02. **Bukatu:** 00:41:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Igeldo inguruan lanean zebiltzala, ilunabarrean behera jaisten ziren, nobio-nobiak elkartzen ziren inguru batean ikusmiran ibiltzeko.</p>

20. Putetxera bisita

- **Erref:** URN-020/029
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:45:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Putetxeak

Laburpena:

<p>Ilunabarretan Benta Berri aldera jaisten zirenean, inoiz putetxean sartu-irtena egiten zuten. Behin nagusia okerreko alpargatak jantzita agertu zen bueltan. Taldean baziren erdaldun batzuk eta haiek ez ziren jaisten; afaria gertatzen gelditzen ziren: bakailaoa tomatearekin ia egunero.</p>

21. Izozteak hondatutako basoak botatzen

- **Erref:** URN-020/031
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:47:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Bi urtez egin zuen lan Igeldo aldean basoan. Izozte handi bat izan zen berak 18 urte inguru zituela: hondatutako zuhaitzak botatzen jardun zuten lehendabiziko urtean, eta landatzen bigarreanean.

Transkripzioa

-Han (Igeldon) urtetan aittu giñan. Jelate haundi hua hasi zan hua zenbat urte zian. Nik hemezortzin bat urte edo hemeretzi hola nittun. Ta danak iyartu zittun, piñuk, sienpreberdiak, hango jardiñak eta danak. Ordun denpoa puxkat in gendun, ez gendun bukatu. Ostera hurrengo negun landaria aldatzeko garaiyan berriz jun giñan. Bitan behiñipein, hirutan ez bazan'e.

-Jelate harek baso asko eta txikitu...

-Bai! Txikitu. Erre.

-Ta gero aroztegik martxan jarri behar...

-Bai ba.

-Hori zer izaten da, behin jelatu ezkeo eta erre ezkeo horrek egur horrek balio du?

-Egurak bai.

-Sutarako?

-Surtako bai. Han gaztia're zeon, baiño [aprotxatu hori ez], ekarri're asko itten zun txofer horrek; materiala're asko zeon han.

-Ordun aprobetxatu zitekeen?

-Bai, bai, serrarako. Aprobetxatzeko moduko eur asko bota gendun.

-Baiña bota egin behar segittun gaztia ta zaharra ta dena.

-Bai, zarra ta dana bota bihar. Bestela hemen gaztia eta zarra hor botatzen badezu, haren gaiñea dator eta. Dana txikituta geatzen da. Ez lan haundik, e. Jela harek danak ihartu zittun.

22. Bizimodua basolanetik ateratzea, gogorra

- **Erref:** URN-020/033
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:49:13. **Bukatu:** 00:50:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Arroan, Elduainen eta beste leku askotan ibilia da basolanean. Enborra nola prestatzen den kontatzen du basotik atera ahal izateko. Oso gogorra omen da basotik bizimodua ateratzea.

23. Artzaintzan hiru-lau urtez

- **Erref:** URN-020/034
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:50:40. **Bukatu:** 00:52:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Hiru-lau urtez ibili zen artzain, udazkenetik udaberrira arte. Idiazabalgo familia batekin morroi gisa. Urnieta aldera etortzen ziren artaldearekin negua pasatzera.

24. Urnietatik Idiazabaleraino oinez artaldearekin errepide nagusitik

- **Erref:** URN-020/035
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:52:06. **Bukatu:** 00:56:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Apirilaren azken aldera bueltatzen ziren sorlekura. Oinez, berrogeitaka kilometro eginez, herriz herri. Arratsaldeko bostak aldera abiatu, Villabonan afaldu eta gau guztia ibiliz emanez, eguerdi aldera heltzen ziren Idiazabalara. Farola eramaten zuten bizkarrean autoek ikusi zitzaizten. Oinak odolduta heltzen ziren ardiak zein artzainak. Ia ez zuten autorik aurkitzen N-1 errepidean. Zer nolako ibilgailuak topatzen zituzten kontatzen du.

25. Otsaurte aldean udako larrelekuak

- **Erref:** URN-020/036
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:56:46. **Bukatu:** 00:57:42

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Altsasu-Otsaurte aldeko mendietan larratzen zituzten ardiak udan. Gaztak ere mendiko txabolan egiten zituzten. Bera maiatz azkenera arte egoten zen han, hilabete batez. Gero etxera itzultzen zen.

26. Hankamina, ardien gaitza

- **Erref:** URN-020/037
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:57:42. **Bukatu:** 00:58:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gaitz bakarra izaten omen zuten orduan ardiek: azazkal tartea egosia (hankamina). Nola sendatzen zen esaten du.

27. Arkera garaian aharia batera zein bestera

- **Erref:** URN-020/038
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:58:25. **Bukatu:** 00:59:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Arkera denboran (zelo), etxeko artaldean arkera dagoen ardirik ez badago, aharia beste artalde batera joaten omen da.

28. Arkumea, bildotsa; arkaztea, artantxoa eta ardia

- **Erref:** URN-020/039
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:59:18. **Bukatu:** 01:00:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Berak udazkenetik udaberrira arte egiten zuen artzain. Garairik onena omen. Goizean ardiak atera larrera, eta eguna lasai pasatzen zuen. Baratzeko koskor bat ere izan zuen denbora pasa gisa. Ardiaren izenak: jaioberria "arkumea", urtebetekoa "bildotsa", bi urtekoa "arkaztea", hirukoa "artantxoa" eta hortik aurrera "ardia".</p>

29. Euskara batua ulertzeko zailtasunak

- **Erref:** URN-020/041

- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:01:58. **Bukatu:** 01:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Oraingo euskara batzuetan ez du ulertzen. Ilobak ikastolan euskara diferente samarra ikasten dute. Etxean egiten ez duenak nekez ikasiko omen du eskara.

30. Urnieta inguruko euskarak denak antzekoak

- **Erref:** URN-020/042
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:03:10. **Bukatu:** 01:04:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Inguruko euskarak Urnietakoaren oso antzekoak omen dira. Euskaldun zaharrei dena ulertzen zaie baina berriei erdirik ere ez. Zenbait euskaldunek erdaraz egin izan dio zenbat erdara dakien frogatzeko. "Jende gaiztotzat" ditu horrelakoak.

31. "Ese chapurriau" (euskara) galarazteko ahalegina soldadutzan

- **Erref:** URN-020/043
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:04:15. **Bukatu:** 01:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Ez zuen euskararen aurkako debekurik sentitu soldadutzaz aparte. Soldadutzan euskaldun kuadrilla elkartzen zen tabernan, eta "txurriano" kalamidade batek salatu egin zituen euskaraz jarduteagatik, "ese chapurriau" galarazteko eskatuz. Ofizialak ezetz erantzun zion, hizkuntza zaharrena zela-eta. Ofiziala euskal abizenekoa omen zen.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com